





ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—: || 11 Urtea || 1929'ko Otsaila || 122 Zenbakia. || :—

Kandelari Eguna



POLITA baño politago dan gaurko jai onek adierazi nai digu, aur-egin ta ondorengo befogei egunak igaro dirala, eta legeak agintzen duan bezela Ama Birjiñak Jerusalemera joan bear izan zuala, Ama garbitze, eta Seme eskeintza, au da Elizan-sartzea, egitera.

Moisesek emandako legea.

Aur-egite ondoko befogei egunak, etxetik atera gabe igaro ondoren, Israel-go emakume guztiak Elizan sartzera beartzen zituen Moisesek emandako legeak.

Elizan sartzean arkume eta usokume bat eskeintzen zuten ofrendan, aur-egitean zeraman zikintasuna garbitzeko.

Beartsuak, beriz, arkumearen orde bi usakume eramaten zituzten. Ofrenda eskani ta gero, amaren alde ototz txiki bat egiten zuan apaizak, eta ofela aur-egin zuan andrea, garbi garbia gelditzen zan guztien afean.

Bereak bakatik izango zirala lenbiziko semeak agindurik zeukan Legean Jangoikoak: eta oiek Jangoikoagandik askatzeko bost *siklo* ordaindu bear izaten zituzten.

Judutafak bazuten alako zilañezko diru bat, eta deitzen zitzaion sikloa: diru ori ontzerdien bat edo ola eldu zan.

Ez batak eta ez besteak

etzeukaten onelako ezertxo ere egin beafik; Ama garbi garbia zalako, eta bere garbitasuna ez len, eta ez gero ere ez bai zuan galdu. Semea befiz, gizon egin zanetik, Aita Betikoari eskeñirik zegoan: baña lege ori bete nai izan zuten, guri erakusteko bakafik.

Ama Birjiña eta Jose S. Jerusalem.

Besoetan Aurtxoa zeraman Ama Birjiñak, Jose Santuak, befiz, eskeintza; eta Elizako atera etofi ziranean, bi usakume eman zizkioten apaizari.

Beartsuak ziralako etzioten arkumerik eskeñi; bañan berekin zeramaten munduko bekatuak kentzera zetoñen Bildots garbia.

Aur-egin duen ama elizan sartzea.

Oraindik ere irauten du Moisesek emandako legeak. Gure Eliz-Amak emakume guztiak elizan sartzera beartzen ditu; ofegatikan aurtxoak besoetan eramanez, al duten bezin laster elizaratzen dira amak eta eskefak emanaz eskeintzen dizkiote Jaungoikoari beren aurtxo maiteak.

Apaizak befiz otoitz samur batzuek egiñaz, zorioneko agufa ematen die. Ara bada nundik datoñen aur-egin duen amaren elizan sartzea.

Noiz nai, Jauna, eraman ni emendik.

Elizan sartu orduko, zeruak ere argitasuna emanta, ezagutu zituen Simeon zeritzaion gizon zar eta biotza Jangoikoaz bete beterik zeukan santuak.

Eta Aurtxoa besoetan artu, begiak zerurontz jaso eta asi zan Jangoikoa goratzen, kantatuz: «Orain, bai, Jauna, noiz nai emendik eraman nazakezu, Salbatzalea nere begiz ikusi dut eta.» Simeon auetan zegoala, Ana zeritzan andre zartxo bat, Jangoikoaren argiz ura ere Elizara etofia, Jauna goratzen asi zan.

Simeonek gero Amari Aurtxoa itzultzen dio, eta Elizatik ateratzen dira Jose Santua eta Ama Birjiña; eta Betiko Aitari bere Seme kutunaren eskeintza egin ondoren, etxerontz abiatzen dira..

Auxen da bada, kristau efi guztietan gaur egiten dan jaiak, gogora ekartzen diguna.

Argizaien bedeikazioa eta prosesioa.

Eliz-otoitzak egin eta, kristau efi guztietan argizaiak bedeikatzen ditu apaizak, eta elizara etofi diranei emanaz, Jose Santuak eta Ama Birjiñak egin zuten bezelako prosesio ikusgaria egiten da eliz bafuan edo eliz inguruan.

Noiztik dator alako jai ikusgaria?

Kandelari eguneko oitura eder ofen asiera jakin nai baldin ba degu, lenbiziko mendetarañ jo bearko degu.

Apostoluak berak jafi zutela diote jakintsu geienak.. Ala ere garbi eztakigu. Ori bai: ba dakigu IV-garfen mendean, Konstantino Efegeak iguzkien pareko Jerusalem goratu zuen elizara joanaz, prosesio polit bat egiten zala, eta gaurko Ebanjelioa ere irakufi eta azaltzen zan Meza Santua ematen zan artean.



Jesus, Maria ta Jose

Izugarizko gaitza.

Ziur dakigu Sortaldean nork asmatu eta neiz sartu zan jai ori. 542'gafen urtean, Sortaldeko efietan izugarizko gaitza ibili zan, eta efi guztiak ondatu zituan. Eta Ejipto eta Konstantinopla ere gogor zigortu ondoren, Efoma aldeko efietan zabaltzen asi zan.

Orduan Jangoikoaren asefea palakatzeko Justiniano Efegeak agindu zuan argizaiekin eliz-jira egitea.

Kristau berien jai lizunak.

Il onetan beren eskuetan zuziak eramanoz, kalez-kale ibiltzen ziran gaur paganoak.

Oiek bataiatu ta gure Elizan sartu ziranean, etzituzten nola nai beren oiturak utzi; eta oitura lizun oiek kentzeko, lan gogofa izan zuan elizak.

Onela garai artan zan Jelasio I Aita Santuak Kristo bakafik munduguztiaren argia zala adieraziz, sartu zuan jai lizun aien ordezt, onelako festa edeña.

Ordutik kristau eliza guztietan urtero egiten da gaurko egunean len esan degun proselio ikusgafia.

Entzun bada Bernardo Santuari: «Gaur elizara ekartzen du bere Jauna Ama Birjinak: Jose Santuak eskeintzen dio Jangoikoari sortzerik izan ez duen bere Semea. Aspalditik ikusteko zai zegoan Salbadorea, Simeon gizon on eta zorionekoak ezagutzen du. Alako atsegin gozoaz gero egin bear zan jaia, oiek ziran lenengo aldiz Jerusalemene egin zutenak. Goazen bada guztiok gure Jaunaren bila.»

Len bai.. eta orain?

Elizaren lenbiziko mendeetan beren argizaiekin joaten ziran elizara kristau geienak. Apaizak bedeinkatzen zituan argizaiak, eta eliz-bafuan egiten zan prosesoan, kristau guztiak apaizari laguntzen zioten. Eta orain? Zenbat kristau ikusten dira elizan? Gauza efukigarria zinez! Garbi ikusten da gero ta geiago oztutzen ari dala gure sinismena: elizan beren apaizari laguntzen, lotsatu egiten dira gaurko kristauak.

Biotz biotzez eskatzen dizutet...

Iduki ondo zuen aufekoak emandako aziera ona. Egun ofetan elizara joateko, alegiñak egin. Eraman argizaia eta bildu elizak egiten duan prosesoan, lotsatu gabe. Kandelari egunean bedeinkatutako argizaiak, gorde itzatzute etxean, zuen aufekoak bezela: eriotza beltza eldu zaitzuela ikusten dezutenean, piztu argizai ori, eta bere laguntza ugari ixuriko du zuen gain gure Jangoikoak. Auxen da, lantxo au irakurtzen dezuten euskaldun guztiei, biotz biotzetik eskatzen dizuedana.

Tolosako Marzelino'k.

O. M. Cap.


Artzai Ona

Artaldea utzirik
Arkume gaxua
Mendiz-mendi galduta
Ufuna dijua.
Bildotxaren atzetik,
Artzaia negafez,
Dijua aldapa gora
Dei bigun samufez.
«Nere bildotx maitea
Jun zait oyanea
Utzirik artaldea.
¡Maitea!
Atoz, atoz laztana,
Itzuli niregana
Ez astu nire miña!
¡Au lana!!!»
Artzaia atsaunditurik
Tontofera igotzean
Bildotxa odoldurik
Dakus ¡ai! laf artean.
Ta lasterka dijoa
Bildotxarengana
«Atoz, esaten dio,
Atoz niregana».

Besoetan artuta
Arkume galdua
Samur galdetzen dio:
«Zergatik, gaxua,
Zergatik utzi nauzu,
Zuk, ene maitea,
Ta artu dezu, kuñuna,
Mendiko bidea»?
.....

Aldapa bera dator
Artzaia txit pozez,
Besoetan bildotxa
Samurki esanez.
«Zu nere biotzeko
Arkume maitea,
Ez artu ¡ai! geiago
Mendiko bidea,
Antxe izango bestela
Zure galbidea
Beriz uzten ba-dezu
Artzai ta artaldea.»

Altuna.



Kaputxinoen Ikastetxe Serafindara Altsasun

(1903 - 1928)



Ogeita zortzi urte bete ditu Eus'kaleri - Aragon'go Kaputxi-noak geren Ikastetxea idekirik. Kaputxino izan nai duten mutiltxoai eliz-ikastaroko lenengo ikasbideak emateko sortu zan.

Baño ez Altzaniaren saietsean, gaur ikusten dan zelai

ederean, baizik Lizafa (Estellako) uri zafaren ertzean, Rocamador'ko Andre Mariaren itzalean.

1903-gafengo Azaroaren ogei ta batean ogei mutiltxok jazten zuten Ikasle Serafindaren soñekoa. Ufengo urtean ba-genitun beste ogei, Asis'tar Prantzisko donearen antzeko izan nai zutenak.

Beste asko, atetan zeuden eske, bañan gure Lizafa'ko etxean etzegon toki-rik. Argatik gure maitale aundi batzuen laguntzarekin Altsatsu'n prestatu zan 1906'gafengo Otsailera, gure gazteriak eskatzen zuen etxea; ez naski bear liraken egokitasun guziakin, baño bai urteakin ondo tajutzeko bidean.

Etxea ta Ikasleak ugarituz

Gure beartasunak eta ainbesteko gazte sañaren eguneroko jan eta estalbi-deak buruauste aundiak eman ba-dizkiote ere gure Aita Nagusiei, ongilean laguntzarekin-eta etxea pixkeka-pixkeka antolatu da.

1906'an jafi zan eliza egiteko lenengo afia ta 1913'ko Domine Santu egu-nean ideki zan eliza. Andik iru urteren buruko lengo etxeari puska beria erantsi zitzaion, eta orain iru urte orain daukan erara beritu zan.

Kabia aundituz joan dan era berera, ugarituz joan dira gure mutiltxo ikasleak ere.

Ona urtez-urte zenbat iduki ditugun gure Ikastetxe onetan:

1906-garén urtean 50.

1907-garén urtean 60.

1914-garén urtean 86.

1915-garén urtean 92.

1917-garén urtean.

1928-garén urtean 115.

Gaur ba-dute lekua 125 egoteko, baño leku osasungafi ta egokia, ofelako ikastetxeak dituzten auferapen guziekin.

Atzera begira

Gure mendi muñotara geranean, zein ikusteko edefa agertzen zaigun atzean utzi degun beko zelaiean. Alakoxekoa datorkigu gure gogora, Ikastetxe onen ogeita bost urte oiei begitzean.



Altsatsuko Kaputxino Irakasleak beren ikasleekin, 1927'an.

Amaika urte ditu, Ikastetxe ortan azitako Aita gazteak mundua argitzera lenengoz aterarik. Eta *Txina'n* ba ditugu bost misiolari.

Pilipiñetan beste bost.

Guam'en sei dauzkagu or aziak, eta beste batek antxen bere bizia eman zuen, *txamoño* maiteen onez.

Txile ta Arjentina'n ogeitaraño ba-dira, Jaunaren ardi galduen biña dabil-tzenak.

Amar Aba beren ikastaro berezietan *Doktore* eta *Lizentziatu* egin diranak or daude gure Altsatsu berean, Iruña'n, Lizañan, Ondañabi ta Lekarotz'en. Berroiek eta or azitako beste zenbait, dira gaur gure Abagaien Irakasle gure etxetan, gañera gure Lekarotz'ko Ikastetxean zortzi ta Euskaletxean (Buenos Aires'en) zazpi.

Eta non uzten nituen ainbeste Aba iztun gazte?

Altsasuko Ikastetxean jai aundiak

Ikusgafiak bai izan dirala gure Altsatsuko Komentuan egin diran pestak, lenengo ogei ta bost urteak Ikastetxe orek bete dituanean.

Ilbeltzaren iru, lau, bost eta seian elizkizun aundiak egin dira Jaungoikoari eskefak emateko; beroietan itzaldi bikañak egin dituzte Arizaletako Ruperto A.

Sangozako Komentuko Buruak, Lizasoko Rikardo Aitak, Murtxanteko Gaspar Aitak, Yabarko Ladislao Aitak eta Aita Probintzial Txit Agurgariak.

Zorion agufaldiak

Efege-egunean artu ziran onako zorion diosala edo agufaldi, guziak poztu zituztenok:

Efomatik

«Eskatu zaion Bedeikazioa poz-pozik ematen die Aita Santuak orko Agintariari, erakusleei, lenago or ikasten ibilitakoei, eta bai ta ere elizkizunetan arkitzen diran kristau guztiei»...

Gure Aita Jeneralak ere bialdu zuen bere buruz beste bat. Efomatik: «Zuen artean arkituko banitz bezela bedeikazio berezi bat ematen dizuet agintariei, erakusleei, ikasle guztiei. *Benisako Meltxor.*»

Efomatik beretik beste bat, lenago bera ere au bezelako ikastetxe batean gazte denboran egonak:

Efomatik: Altsatsuko nere Serafiko Anaitxoei pakea eta zorientasuna. *Arbonako Lazaro*, Aita Jeneralaren Laguntzalea.

Gure Txinako Misiolariak ere etziran aztu egun ofetan: eta ara nolako telegrama bikaina bigaldu zuten:

Txintxow'tik: Lenago Altsatsuko «Eskola Serafika»n eta orain Txinan, Kansuko Misioetan gaudenok poz-pozik zuen artean arkitzen gera biotzez, Jan-goikoa goratzeko bakarrik egin diran Eskola oietan. *Walleser*, Txinako Go-tzaia.

Begibeltx.

Gotzai Naparak

Luciano Perez-Platero Jaun G. Agurgafia Arizaleta'n 1882'an jaioa da. Apaiz ikastaroan, geiena Iruña'n egin zuan. Comillas'en egin zan Doktore Teologian eta Efi-legetan. Sto. Domingo de la Calzada'ko Doktoral izatea irabazi zuan norgeiagokan eta bietako lanbide zaletan bere bikaintasuna azaldurik Madrid'ko *Auditor de la Rota* ta bertako Apaizgaitegiko Irakasle aukeratua izan zan orain iru urte. Orain beriz, Segovia'ko Gotzai izateko.

¡Urte askozko Jauna!

Manuel Artze Jaun G. Agurgafia Ororbian jaio zan 1879'go Dagonilaren 18'an. Iruñan egin zituen bere apaiz ikastaro geienak. Zaragoza'n *Doktore* egin zan Teologian eta Efoman Eliz Legetan eta Filosofian. Bere ikastaro guztietan argienen galufean eta sariturik ibili izan da. 1904'ean Efoma'n Apaiz egin zen eta 1914'enetik 23'ra Iruña'ko Apaizgaitegiko irakasle. Urte ontan Kanonigo Doktoral izatea irabazi zuen eta Jose Lopez-Mendoza Gotzai zanaren ordez Vikario Kapitularrak aukeratu zuten ta urte batez izan zen. Ufengo urtez gero *Vikario General* eta *Provisore* izan da.

Napara osoaren agufarekin ar beza «Zeruko Argia»ren ere.

Belen'go estalpea

Urtusia'ren itzak

Lizafa'ko Iñari A'k. egiña.

Lekarotz-1928.

Andante P

Be-lengo es--tal - pe - a ze - ru bi-ur-tu da

PP

Oi zo-ri-on aun--di - al Lu - - -fe - an ze-ru - - - a

mf PP

Andante P

Ain --- geruak dei - - - - - tu ta men-
Goa -- zen goa-zen gu e - - re es-

PP

di - ko ar - tzai --- ak Be - - len'a jo - an di - ra kan -
tal - pe ar - ta - - - ra Je --- sus zo - ra - ga - ri - - a goa -

ta - ri a - la - - iak. *mf* Ze - ru - ko lo - re - - txo - a an - - - txen ar - ki - tze -
zen i - kus - te - - ra. *mf* Ze - ru - tik je - txi zai - gu Ne - - - gu bi - o - tze -

an aien bi - otz - a - ri - - - mak *rit* no - - la poz - tu di - - - ran!
an. Agur e - gin de - zo - - gun *rit* po - zez - ko kante - - - tan.



Ilabete onen amairugafen egunean meza bat emango da «ZERUKO ARGIA'-REN» irakurle, zabaltzale ta ongile guztien alde, Antonio Santuaren aldarean.

¡EUSKALDUN GOTZAI AGURGAÑA!

¡EGINO'TAR JOSE OBISPO JAUNA!

¡Zorionez beterik gaude befiz; beste Gotzai edo Obispo Euskalduna, Gipuzkoafa, Azkoitiafa!

Ez gera aritu; ixil... ixilik bizi zan Eginotar Jose Jauna, etzitun zabaltzen alderdi guzietara bere lanak, baño an ari zan, jo ta jo, ekin ta ekin, lanean egunero, urtero bere Irungo efi ta Pafoki maitagarian.

Beraz inork jakin gabe bizi zan, baño laxter saritu dio Jangoikoak bereganako zeukan maitetasuna. Obispo egin dute, santu aundia zalako, naiz bakardadian, naiz ixiltasunean bizi ta lan egin. Ez gera aritzen, ondo merezi zuan.

Bera izan da efi artan Artzai Ona.

Afek bere ardiak zeruzatzeagatik egin dituan lanak! Alderdi guzietara begiratzen, bere kezka aundiena, bere gogo sutsuena 'zan *gizonak Elizara ekartzea* ta jeginalak egin zituan.

Zenbat aldiz piztu ditu efiko gaixoak! eri zeudenean, bera ibiltzen zan etxez etxe beren biotzak arintzen ta naigabeak gutxitzen.

Ta Irungo Apaiz ofek ematen zituan limosnak... ez ditut buruz esaten olako gauza auk, neonek askotan ikusiak baitira.

Bera izan da Irungo Argia.

Afitzen zituan guziak bere predikazioaz; pulpitotik zabaltzen zuan berak egiazko ta zeruko argia, naiz erderaz, naiz euskeraz, ederki egiten zituan bere itzaldiak.

Asko maite zituan euskaldunak, basefitafak. Guipuzkoako Pafoki gutxietan bezela gorde du Eginotar Jaunak Euskerazko predikazioa bere Pafoki artan.

Ta ori gutxi balitz bezela, orain bi urte ta erdi «La Voz de la Parroquia» zeritzan ofialde eder-eder bat zabaltzen zuan noizean bein bere efitafen artean.

Bai ederki egiten zuala!

Bera izan da Irungo gatza.

Aragia ez usteltzeko gatza bota bear zayon bezela, baita Eginotar Jaunak, beti alegiñak egin ditu, alde guzietara saiatu da oitura onak gordetzeko; bestela.. justeldu egiten dira efitetako oiturak! Sermoyak, Bederatziurinak, Ejerzizioak... Eliza artan izaten ziran elizkizunak! nola begiratzen zien oitura onai! zenbat lan garbi gordetzeko...

Baño batez ere igaztediaren maitetasuna! Zeñek neufitu, bear dan bezela, Irunen egin duan lana «Buenos Amigos'en» Alkartasunaren bidez? ¡Jaungoikoari eskerak! baita ere bere anai Luis Jaunari... Jaungoikoak bakarrik daki zuek efi artan alkartasun ofen bidez egin dezutena. Egunen batean ez da nolanaikoa izango Zeruan izango dezuten saria. Irungo efiak galdu dituan Apaizak!

Izango al ditu olako beste bi? Jaungoikoak ala naiko al du! Izango dira, bai; badakit, Irungo Apaiz Jaunak oso langileak dira, asko maite dute elkar, oso

ederki batutzen dira beren lanetan, eta oyek jaraituko dute Egin Jaunak egiten zuten lanetan, oraindño ere pozik laguntzen baizioten.

Aundia izan da Irungo efiak izan duan poza eta agertu dion maitetasuna bere Konsagrazioko egun aundiyan, Ilbeltzaren 13-gafenean; baño Obispo Jauna-



Egin Jaun G. Agurgaria

ren lanak... estutasunak... eginbearak aundiak dira, Eliza Ama Santak Obispo Santuak bear ditu.

Otoitz egin dezagun; Jaungoikoak asko goratu du ain maite izan degun Egin Jauna; baño orain bereganako maitetasuna agertu nai badiogu, otoitz egin, eskatu Jangoikoari, jafen! oraindño bere eginbearak bete dituan bezela, bete ditzala, Elizaren ta Euskaleriaren aintzarako Obispo aundia, ospatsua ta santua izan dedin.

Donostiar Gabriel A.

TXINATIK

(Jaraipena)

Dima'ko Soloeta Fernando Aita, nere Afatiar-kide txit agurgaria, dala ia ilabete bat, emen degu gure artean.

Auxe da mutila, auxe! Guziok afiturik gaude. Txina barna bakarik ibili-ta, ain laster ta ain ongi gure artean agertu zaigulako. Auxe da mutila izatea, auxe!

Guk, azkenez etori geran bost mixiolari befiok, Txina'n ogei urte egin dituan mixiolari zar bat izan genduan bide-erakusle ta zuzendari. Alaz ere or ibili giñan lau ilabete baño geiago ibili ta ibili, Jaungoikoak bakarik dakien eran.

Soloeta Aitak ordea erdi-bakarik egin du bide guzia, bi ilabetetan eldu zaigu. Ongi etori!

Hankow'tik idatzi zigunean, guk gure artean esaten genduan: «Orainarteko bidea efaza izan du. Baña emendik aufera beltzak ikusi bear ditu, ona iritxi baño len.»

Orainik onela oldozten geundela, beste eskutitz bat idazten digu Sianfu'tik esanaz: «Eldu naiz onano; ta bide erdia egiñik daukat noski.»

Orduan gu afiturik galdezka: «Nola etori da ain laster...?» Eta onela geundela, egun batzuen buruan, ixil-ixilik, gure ustekabez, mixioan agertzen zaigu.

Ongi etoria bioz-biotzetik eman genion. Asia da ia bere lanetan.

* * *

Asis'tar Prantzisko Santuaren aste osoan, emen Sifengchen'en bildurik egon bear giñan mixiolari guziok, mixio gaietaz itz egiteko-ta.

Baña Gergori Aita eri zegoela-ta, Soloeta ta Fuljentzio Aitak ere berarekin egon bearez etzitezkeala etori-ta, Lizartza'ko Ander Aitak ere bazuela eztakit zer beste gauza bat-eta, gure batzafetan ezkenduan gauza aundirik egin al izan.

Ufilaren irugafenean, Teresatxo Deunaren egunean, guziok eman genuen meza Gergori Abaren alde, osasuna eskatuz. Laugafenean, Gure Aita Prantzisko Santuaren jaian, meza nagusi eder-eder bat izan genuen ta au ere Gergori Aitaren alde.

Gure Jaungoikoak osasuna itzuli bezaio len baño len! Mixiolari bikaña, langile purukatua, beti lanean ari dana txinatar erukariak bide onera ekartzeko, bear-beafa degu Mixioan. Jaungoikoak ez al digu kenduko ain gaztea dalarik!!

* * *

Gañerako mixiolariak oso ongi gaude, Jaungoikoari eskerak. Pingliang'en Lizartza'ko Ander et Dima'ko Soloeta Fernando Abak daude. Auxe da eririk aundiena askoz gure Mixio guzian. Tarsizio A. Balduin A. alemandafakin Kingchow'n. Au ere eri aundia da; eta Sianfu'tik Pingliang'erako bide zabalean arkitzen da.

Guli'tar Erafel Aita Yutimio deritzaion zelai polit, eder-ederean dago bakarik. Su ta gar ari da eliza ta mixio-etxe beria egiten. Nik eztitut mixio-etxea ta eliza nola dijoazten ikusi; uste det oso ongi egingo dituala, ortarako oso tre-

be baita. Bakarik dago; baña Kingchow'tik urbil egiten da ta noiz nai joaten da Tarsizio Abarekin egotera, batez ere orain eliza ta mixio-etxe beña egiten ari dan bitartean.

Aldaba'ko Gergori ta Bargota'ko Fuljentzio Abak Chengyuen'en. Oiek biok ere eliza ta mixio-etxe beña egiten ari dira Sansja deritzaion eñi batean, (1) Chengyuen'dik uruti. Oiek biok kristau asko dute beren ardurapean.

Bilbo'ko Simon eta Ipar-Ameriketako Rudolf Abak Kingyang'en daude. Eliza ta mixio-etxea eñitik kanpora dute Shanshelipu deritzaion lekuan. Alderdi au da kristaurik geien dagoena; beren ardurapean sei eliza dauzkate kristau askokin. Oraingo aldian lapuñen añiskua dago; baña gauzak ondo badijoazte, uste degun bezela, emendik urte bete bañu, ezta lapuñen bildurik bat ere izango.

Azkenez emen Sifengchen'en Adalar Aita, tiroldara eta ni pekatari au gauda. Eñi aundia da; baña kristaurik orainik oso gutxi, eliza ta mixio-etxea egin beñiak baitira.

Onexek gera Kansu'ko alderdi zabal, luze onetan orain arkitzen geran mixiolariak. Geroago, euskaldun mixiolari geiago etoriko danean, guk bakarik izango degu alderdi onen ardura. Badegu, bai, non lan egin tokia ta non eliza beñiak egiteko eñiak. Euskaleriko kristauen otoitzaz ta laguntzaz ta zerbait egin degun Jaungoikoaren goramenerako.

* * *

Biok diozute zuen eskutitzetan, asko oroitzen dirala nitaz ni ibili nintzan eñietan. Nik ere auxe bera esan dezaket: asko oroitzen naizela eñi on oietako kristauetaz. Zuen itzaldietan-ta esan bear diezue eñi oietako kristauei otoitz asko egiteko mixiolari guzior alde, uste duten baño beaño degulako Jaungoikoaren laguntza, bedeinkapena ta onginaia.

Intza'r Damaso Aitak dio, badela andre xar bat, mixioak eman nituen eñi maitagafi batean, egunero nere onetan eñosarioa esaten duena. Auxe baño mesede edeñagorik ta aundiagorik eztizadaket egin. Biotz-biotzeko eskeñak eman zaizkiozue nere aldetik.

* * *

Etzait besterik gogoratzen oraingo onetan ta eguraldiaz itz egin bear di-zuet zerbait, bukatu baño len. Bero aundiak egin ditu uda onetan ta bero gogo-farekin bazter guziak agorturik daude. Urte guzian eztu euririk egin. Azkeneko uzta guzia galdu da; eztute ja ere bildu. Ta orainik, txarago dana, joan dan ilabetearen erein bear zuten datoñen urtean, udabeñian biltzeko garia. Baña euri-tantarik egin eztuelako, iñork ere eztu erein al izan.

Txinatar gaxoak! Ia orain eztute zer jan ta geroago ta gutxiago izango dute; eta azkenez, eldu den urtean, asko ta asko ilko dira gosez. Txinatar gaxo, eñukariak...!!

* * *

Agur, agur, ene lagun ta adiskide maitte oiek. Bizkor ibili, lan egin ta ez aztu zuen otoitzetan beti gogoan zaizkaten adiskide onetaz.

Yuf'e'tar Julian, O. M. Cap.

Txina'ko Mixiolaria.


Orain gaztigatzen digu Yuf'e'tar maitiak bera dijoala Sansja'ko Misiolari ta Fuljentzio Aba aren lekura.

1. D. A7.

Ikasi!.. Ikasi!..



I.—Patziko eta Praixka senar-emazteak
Bakafik bizi ziran baseñi batean;
Elkar maite zuten bai, bañan alaz ere
Iskanbila maiz aski bazuten etxean.



II.—Olako bizieraz asperturik Praixka,
Negafa dariola etxetik atera,
Ta auzoko Anton zafa bilatzera doa,
Zer egin bear duen ari galdetzera.



III.—«Anton, nere senafa gizon prestua da,
Maite det; baña eñaz asafetzen gera;
Egunero badegu etxean buruka;
Pakean bizitzeko zer egin bear da?»—




IV.—«Tori, Praixka, bonbil au, urez betea da;
Patziko asafetzen zaitzun guzietan,
Ur ontaz bete zazu ongi zure agoa,
Ta ura paketu arte ez agotik bota.»—



V. Biaramon berean Patziko su ta gar
Iskanbila ateratzen badator etxera;
Bañan andrea ixil, ez itzik egiten...
Senafa ere laster paketu ta ixiltzen...



VI.—«Praixka, nere ur ori itufiko ura da,
Eztu mirari ori egin nere urak:
Nai badezu izan beti etxean pakea,
Senara asafetxean ez itzik atera.»



Goi-Amerika'ko Presidente ta Mercier Kardenala.

Mercier Kardenalaren iloba bat da gertaera au gogoratzen duena. Azkenengo ge'ako zorigaiztoko egunetan, Goi-Amerika'ko Presidente beria Belgika'n aldi batzuetan egon zan, efi beartsuenai laguntzera eto'ri zanean. Mercier Kardenala ta Hoover Presidente oso adiskideak egin ziran. Amerika'ra itzulibear zanean, Kardenalari aguf egitera joan zitzaion eta esan zion pozik artuko ziola berarekin eraman oi zuen gauzen bat.—¿Zer eskeñi dizazuket? erantzun zion Kardenalak.—Efosarioa edo..... esan zion Hoover'ek. Kardenalak bereala eman zion, alako eskaeraz pixka bat afiturik. Amerika'ra itzuli ta gero ere, bere lagunak ziotenez, Hoover'ek etzuen Kardenalaren efosarioa uzten eta orain ere baditeke gordetzea.

¿Nun izango da ufengo Eukaristi-Batza'a?

Ufengo Eukaristi-Batza'a, XXX'ga'fena, Kartago'n egingo da. Afrika'ko efi ortan bilduko dira dato'fen urtean efi guzietako katolikoak aldaretako Sakramentua goratzera. Beren bilera ta elizkizun batzuek Tunez'en egingo dituzte katolikoak. Uri onek 180.000 lagun baditu ta etxe asko, ara joango diran katolikoak artzeko. Inor etxerik gabe gelditu ez dedin, etxe beriak egitekoak dira Tunez'tik Kartago'rako bidean eta kaian ere ontziak izango dira ortarako. Agintariak, maomarak izan da ere, beren poza ageftu dute, kongresoa egiteko, katolikoak Kartago aukeratu dutelako ta esan dute berak ere lagunduko dutela.

Monja ta prailien alde.

Monja ta prailiai Prantzia'n bizitzen utzi bear zaien edo ez, asko itz egiten ari dira. Ez bakarrik katolikoak, katoliko ez diran asko ere monja ta prailien alde jarri dira, Prantziari mixiotan egiten dioten on aundia ikusirik. 200 gizon jakintsuenetakoak diputaduai idatzu edo eskribitu diete esanez beren begiakin ikusi dutela, zein on aundia egin dioten Prantzia'ri mixiotan ta negargaria izango litzakela on guzti ori galtzea, beren erian bizitzen ez uzteagatik. Gizon jakintsu oyen artean badira protestanteak eta juduak ere. Periodikuak asko itz egin dute karta ontaz eta orain diputaduak zer egingo duten guziak begira daude.

Mixiolariak berena emateko.

Txina'ko gobernua Aita Santuaren Ordezkoari eskatu dio obispo guziaz esateko, gobernua jakin nai lukela, ea mixiolariak eman zaizkien beren eliza eta etxeak; oraindikan soldaduen eskuetan baldin badaude, lenbailen uzteko gobernua agindu nai diela. Esan bearik eztago zein pozik artu ta bete duen Aita-Santuaren Ordezkoak Txina'ko gobernuaren gogo au. Makiña bat mixiolari pozituko dira beren eskuetara eto'rtzen ikusten dituztenean, berak betiko galduak uste zituzten etxe ta elizak.

Mixiotarako sendagiñeak.

Agiri da zenbat on egin dezaketen sendagiñeak mixiotan, zenbat borondate irabazi ditzaketen Elizarako, gorputzak sendatzen ari diran aldi berean. Protes-tanteak au ondo ikusita daukate noski, beren etxeak egin dituztenean, beren mixiotara sendagiñe ugari bialtzeko, bai gizonezkoak, bai emakumezkoak. Orain urte batzuek asi ziran katolikoak ere Alemani'n mixiotarako sendagiñen alde-z lan egiten; joan dan urtean egin dute ortarako etxe eder-galanta. Aita Santuak 20.000 markokin lagundu die. Etxe ontan 50 ikasle saftuko dira laster; beaf du-tena ikasi ta gero joango dira Asia ta Afrika'ko mixiotara.

Monjak gutxitzen ari diralako.

Monjak eta praileak Prantzian gutxitzen joan dira, etxeak eukitzea debeka-tu zitzaientetik. Ala ere beren etsaiak ezagutu beaf izan dute zein beafak diran. Orain dala gutxi, gobernadore batek dionez, monja batzuek ero-etxe bat utzi beaf izan dute, gutxi izanik, ondo begiratu ezin zutelako. Alegiñak egin dituzte oien orde-z beste monjak ekaftzeko, baño alpefik; joanak erantzun dute ezin du-tela etxe ori bere gain aflu, gutxi diralako. Beste emakumeai lan ori ematen ba-zaie, dio gobernadoreak, diru asko beafko da guziaz ordaintzeko. Au guzientzat egia izanafen, ez dituzte askok monjak ta praileak Prantzian saftzen ikusi nai.

Nola ibiltzen diran txinañak beren jaungoikoakin.

Txina'ko mixiolari batek dio: Joan dan udan legofte aundia izan degu ta be-re ondorean gosete ikaragafia. Noizean bein odei batzuek ageftzen ziran, baño emen beaf genuen euria beste aldera eramaten zuten. Azkenean txinañak asper-tu ziran beren jaungoikoarekin. Bere lekutik artu ta kale erdira atera zuten ta an edefki busti zuten; gero bizkar gañean artu ta mendi baten tontofera eraman zuten, an egunero eguzkia artuaz, ondo ikasi zezan zein gauza txafa zan luzaroan euririk gabe egotea.

Txina'ko katolikoak esker-onekoak.

1922'gañen urtean Aita Santuak bere Ordezkoa Txina'ra bialdu zuanean ango katolikoak asko poztu ziran eta Aita Santuari beren esker-ona ageftzeko bere Ordezkoarentzat etxea erostea erabaki zuten. Hankow'en bizi zan orduan Aita Santuaren Ordezkoa ta katolikoak eskatu zioten Pekin'era bizitzera etor-tzeko. Katoliko guzien artean dirua bildu ta jauregi edefa erosi diote Pekin'en; 1600'gañen urtean, gutxi gora bera, enperadore batek egindako jauregia. ¡Bai ederki adierazi diotela Aita Santuari beren esker-ona, bere Ordezkoarentzat ofen jauregi edefa erosiaz!

Sydney'ko Eukaristi-Batzañaren ondorean.

Ara zer dion protestante batek: Munduaren alderdi guzietako katolikoak, bakoitza bere izkerarekin, Batzañ ontara bildu dira, beren Elizaganako zintzo-tasan aundia erakutsiaz. Gu protestanteak izanafen, ez ditzakegu ukatu kato-likoen artean ikusten diran gauza onak. Beren siñismena aditu ezin badegu, iku-si dezagun beñepein Jesukristo'ri dioten maitasuna

Beste batek dio: Batzañeko zortzi egun oyek gogotik ez dira joango. Aus-tralia'n ez da oraindano ofen gauza ederik egin, ez da siñismena ofela erakutsi. Katolikoak ez diranak ere ez ditezke ixilik egon, beren zoriona Batzañ oni eman gabe. Sydney'ko eriak ez du aztuko katolikoak egin dioten omen aundia, beren Batzaña egiteko aukeratu dutenean.